Arartekoaren mintzaldia Indarkeria Matxistaren kontrako Erakundearteko III. Hitzarmenaren sinadura-ekitaldian 19/01/2023

Lehendakari, agintariak, erakundeetako goi ordezkariak, hedabideak.

Benetan pozik nago eta niretzat oso atsegina da gaur hemen agertzea, gure erakundeetako goi ordezkariekin batera, euskal gizartearen eta hedabideen aurrean, Erakundearteko III. Hitzarmen hau sinatzeko. Izan ere, erakundeen arteko lankidetzarako esparru aurreratu bat izan nahi du, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta neskato-mutikoak hobeto artatzeko eta babesteko.

Sinatzaile gisa ez bada ere, Arartekoak aktiboki parte hartu du, 2011. urteaz geroztik, honen aurreko II. Hitzarmenaren organoetan, giza eskubideak defendatzeko lanean duen ikuspegia eta ezagutza eman ditu funtsezko gaietan, eta hori islatuz joan da aurreko urte hauetan erakundeen arteko arlo horretako lankidetzaren bilakaeran.

Arartekoak hitzarmen honen sinatzaile gisa erabat parte hartzea lagungarria izango da, hemendik aurrera, berariazko lankidetza-jarraibideak ezartzeko eta, haien bitartez, Arartekora iristen diren herritarren kexa eta kontsulten gaineko izapideak bizkortzeko eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta neskato-mutikoen eskaerak hobeto bideratzeko, beren konplexutasunean, genero-ikuspegiarekin eta giza eskubide moduan, horiek artatu behar dituzten erakunde eta administrazioek irizpide komunak erabiliz, indarreko legezko estandarrek eskatzen duten bezala.

Hitzarmen berri hau ezinbestekoa da indarkeria matxistaren biktimentzako arreta hobetzera bideratuta dagoen erakundeen arteko lankidetzan aurrera egiteko. Gainera, horren ondorioz, egokitu beharra dago gizarte-testuinguru berrira eta berritutako esparru juridikora, bereziki Istanbuleko Hitzarmenera eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak izeneko legeaz oraintsu egin den erreformara -Eusko Legebiltzarrak 2022an onartutakoa-, baita ere indarkeria matxistaren kontrako Estatuko 2017ko Itunetik eratorritako postulatuetara.

Sinadura honen bitartez, Arartekoak gaur konpromiso irmoa adierazten du bizitzarekin, osotasun fisiko eta moralarekin, eta giza eskubideekin oro har, eta emakume eta neskatoen eskubideekin. Apustu egiten du, argi eta garbi, matxismorik eta emakumeen eta neskato-mutikoen indarkeriarik gabeko euskal gizarte baten alde. Eta, azken batean, bere borondatea erakusten du atsedenik hartu gabe lan egiteko eta erakundeekin lankidetzan aritzeko helburu nagusi hori hezurmamitzea lortu arte.

Bukatzeko, Arartekoarekin lankidetzan aritzeko borondatea eskertu nahi diet hitzarmen honen gainontzeko erakunde sinatzaileei, eta argiro erakutsi nahi dut erakunde honek beraiekin elkar hartuta eta leialtasunez jardungo duela ahalegin horretan. Horrek euskal herritar guztiei ekarriko die onura, gizarte berdinzalea eta indarkeria matxistarik gabea lortzeko bidean aurrera egiten.